



9. KOSTUEN EGITURA

Enpresa guztiak bezala, kostu batzuk ditugu, gure enpresaren barne-egituran eragina dutenak. Hauek dira garrantzitsuenak:

- **KOSTU-EGITURAK:**

Kostu finkoak:

- Gure denda fisikoa dagoen lokalean egoteagatik hilero ordaindu behar dugun diru-kantitatea (575€), eta honek dakartzan kostu guztiak: argia (100€ hilero), ura (40€ hilero) eta gas naturala (30€ hilero). Honetaz aparte, enpresa bat izateagatik ordaindu behar ditugun zergak(500€). Gainera, baita ere fundazioari ordainduko diogun dirua kontuan hartu behar da (500€).

Kostu aldakorrak:

Enpresak izaten dituen kostu aldakorren artean, produktuak garraiatzeko behar diren paketatzeak aurki ditzakegu, baita ere langileei ordaindu beharreko soldatak. Hala ere, aspalditik aipatu bezala, gu izango ginatke enpresaren langileak, beraz langileei (guri) soldata bat eman ordez, zuzenean diru-sarrerak banatuko ditugu guztion artean eta gero kantitate bat kostuak estaltzeko balio izango dira.

Zuzeneko kostuak:

Zuzeneko kostuen artean lokalarengatik izaten ditugun kostuak dira:

- ura (40€ hilero)
- argia (100€ hilero)
- Gas naturala (30€ hilero)

Zeharkako kostuak:

Zeharkako kostuen artean lokalarengatik izaten ditugun kostuak dira: lokalean egoteagatik ordaindu behar dugun diru-kantitatea (575€ hilero).


Kostu osoak:

5.500€ sarrerak gutxi gora behera.

-2.151,68€ gutxi gora behera.

3.348.32€-ko irabaziak gutxi gora behera.

Kostu-egitura:



Ingurumen kostuak:

Enpresa ekologiko bat garenez, ez diogu inguruneari kalterik egiten, guztiz kontrakoa: saiatzen gara zaborra birziklatzen eta ahalik eta gehien aurrezten, ura, gas naturala eta argiari dagokionez.



Gainera, beirazko botilak birziklatzea bultzatzeari esker, kutsadura murrizten dugu eta honetaz aparte, aldi askotan esan dugun bezala, gure mozkinen %10 Fundación Biodiversidad izeneko erakundera zuzenduta egongo dira, itsasoak garbi mantentzeko eta han bizi diren espezieak bizirauteko.